

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Bake epaile ordezkia

Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 7an egindako batzarrean, beste batzuen artean, honako erabaki hau hartu zuen:

LEHENA. 20 egun baliouduneko epea irekitzea, espediente honi dagokion iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Barrundiako udal-barrutiko Bake Epaile ordezkia izendapenerako eskabideak aurkez daitezkeen.

BIGARRENA. Bake Epaile ordezkia izateko hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Espainiar nazionalitatea izatea.
 - Adinez nagusia izatea.
 - Ez egotea Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritako bateraezintasun-kasuren batean, hau da:
 - Judizialaz besteko besten edozein jurisdikzioko jarduera.
 - Estatuak, Autonomia Erkidegoak, Probintziak eta bestelako toki-erakundeak eta haien mendeko bestelako erakundeak izendatutako edo herriak aukeratutako edozein motatako kargua.
 - Estatuak Administrazioak, Gorte Nagusiak, Errege Etxeak, autonomia erkidegoak, probintziak, udalerriak eta guztien mendeko erakunde zein enpresak emandako ordainsariak, diruz ordaindutako karguak edo lanpostuak.
 - Edozein jurisdikzio-motatako Epaimahai eta Auzitegietako edozein motatako lanpostuak.
 - Ordaindutako beste edozein postu, kargu edo lanbide, salbu irakaskuntza edo ikerketa juridikoa, eta ekoizpen eta sorkuntza literario, artistiko, zientifiko eta teknikoarekin nahiz haietatik eratorritako argitalpenak, herri-administrazioen zerbitzura dauden pertsonen bateraezintasunari buruzko legeetan xedatzen denaren arabera.
 - Abokatutzan eta Prokuradoretzan jardutea.
 - Orotariko aholkularitza juridikoa, ordaindua izan ala ez.
 - Ezin dira karrera judizialean sartu fisikoki edo psikikoki funtzio judiziala betetzeko gai ez diren pertsonak; dolozko delituagatik kondenatuta dauden pertsonak, birgaitzea lortu ez duten bitartean; dolozko delituagatik prozesatuta edo erruztatuta dauden pertsonak, absolbituta ez dauden bitartean edo largespen-autoa eman ez zaien bitartean; eta eskubide zibilak erabat egikaritu ezin dituzten pertsonak.
 - Bake Epaileak ezingo dira alderdi politikoetako edo sindikatu etako kide izan, eta ezingo dute haien zerbitzuko lanposturik bete; halaber, debekatuta izango dituzte Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 395. artikuluan jasotako jarduerak.
- HIRUGARRENA.** Eskabideak, gaitasun- eta bateragarritasun-baldintzak betetzen direla jasota, Alkate-Prezidentetzari igorriko zaizkio, Udaleko Sarrera Erregistroan edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua arauturiko prozeduraren arabera aurkeztuta.
- Hautagaiek memoria txiki bat erantsiko dute, haien hautagaitzaren egokitasuna eta balorazioa egiterakoan kontutan har daitezkeen alderdiak adierazita.

LAUGARRENA. Espedienteari dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzea, bai eta Udaletxeko eta Administrazio Batzordeko ediktu-tauletan, Gasteizko Epaitegi Dekanoan, Barrundiako Bake Epaitegian, udalaren webgunean eta udalaren egoitza elektronikoan ere.

Ozaetan, 2026ko ekainaren 11n

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA